

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 759/2019 Erabakia, azaroaren 26koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren zerbitzuan ari diren langileen ordainsariak ehuneko 0,25 handitzea 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin**

Ordainsariak direla eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauek arautzen dute: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, haiek garatzen dituzten hainbat arauk, eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarrizko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten du, destino osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Lan kontratudun langileen ordainsariak negoziazio bidez finkatzen dira, aginduzko legerian ezarritako mugak kontuan hartuz.

Abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez, sektore publikoko ordainsariekin lotutako presako neurriak onetsi ziren.

Errege Lege Dekretu horrek zioen azalpenean adierazten duenez, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek automatikoki luzatu izanak (Konstituzioaren 134.4 artikuluan jasotako xedapena aplikatuta) berekin dakar ezin gauzatzea sektore publikoko langileen ordainsarien igoera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Hain zuzen ere, 3. artikuluko 2. apartatuak honela dio:

“2019an, sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsariak ezingo dira handitu oro har ehuneko 2,25 baino gehiago, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneotasunez jokatzeko, hala langile kopuruari, nola haien antzinateasunari dagokionez. Horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte ekintzako gastuak, zeinak, oro har, 2019an ezingo baitira 2018an baino handiagoak izan. Horiek horrela, gizarte ekintzako gastutzat joko dira egindako lanaren kontraprestazioak ez diren onurak, osagarriak eta hobekuntzak, zeinen xedea baita sektore publikoko langileen baldintza pertsonalen ondoriozko behar jakinak asetzea”.

Horrez gain, barne produktu gordinaren gehikuntza (BPG) ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz prezio konstanteetan 2018an, 2019ko uztailaren 1etik aurrera soldata beste ehuneko 0,25 igoko litzateke.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGaren igoerari dagokionez, kontuan hartuko da urte bakoitzaren BPGari buruz egindako zenbatespen aurrerakina, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratua (INE). INEK BPGaren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko erabakiaren jarraipen batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez igoera aplikatzea onartuko da, bidezkoa bada. Erabaki hori autonomia erkidegoei, autonomia hiriei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari helaraziko zaie.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 15eko 459/2019 Erabakiren bidez, onetsi zen 2018ko ordainsarien aldean ordainsariak ehuneko 2,25 handitzea Arabako Foru Suhiltzaileak foru erakunde autonomoaren zerbitzura zeuden langileei.

Estatistika Institutu Nazionalak, 2019ko ekainaren 5ean, ziurtatu du ezen, Espainiako Hiruhilekoko Kontularitza Nazionalaren eragiketaren emaitzekin bat etorritik, BPGaren 2018ko tasaren eta 2017koaren artean ehuneko 2,58ko aldea dagoela, bolumenari dagokionez. Zenbateko hori dela eta, derrigorrezkoa da ehuneko 0,25eko balio handitze aldatzeko aplikatzea langile publikoen ordainsariei, eta Ministro Kontseiluak onetsi du sektore publikoko langileen ordainsariei ehuneko 0,25eko gehikuntza osagarria aplikatzea eta, beraz, soldatei eta hirurtekoei dagozkien ordainsarien tauletako zenbatekoak egokitu beharra dago.

Lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2.4. artikulua honako hau xedatzen du:

“Hala ere, baimena ematen zaio Gobernu Kontseiluari, Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsari-araubidea egokitzeko eta garatzeko, 2019ko ekitaldian sektore publikoko langileen gastuei dagokienez indarrean dauden oinarriko baldintzen arabera”

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko irailaren 10eko Erabakiaren bidez, onetsi zen destino osagarria eguneratzea 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena 2019ko ekitaldian aplikatzeko irizpideak finkatzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretuak honela dio 7. artikuluan:

“Langileen kudeaketaren arloan, indarrean jarraituko dute, aplikagarriak diren heinean, 2018rako Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak V. tituluan jasotako aurreikuspenek”

Foru arau horren 25.1. artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen 2018rako ordainsari osoak foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneotasunez jokatzeke, hala langile kopuruari, nola haien antzinasunari dagokionez, eta, betiere, Estatuaren oinarriko legedian ezarritako mugak gainditu gabe”

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren langileen ordainsariak ehuneko 0,25 handitzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Negoiazioa egin da negoziatio mahaiko langileen ordezkariarekin.

Erakunde autonomoko estatutuen 13.2.f) artikulua dioenez, Administrazio Kontseiluari dagokio Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onetsi ditzen, erakunde horretako langileen lan baldintzei buruzko proposamenak. Funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen sailarekin koordinatuko da horretarako, eta alde aurretik langileen legezko ordezkariarekin bilduko da dagokion negoziatio mahaian.

Horregatik guztiatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak adierazitako datan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen oinarritzko lansariak eta lansari osagarriak ehuneko 0,25 gehitzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lurralde Oreak Saileko foru diputatua*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

*JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA*